

DONOSTIAKO BIGARREN SAIHESBIDEA ('ZINTUROIA')

Arizmendin lurra zulatzen ari dira, bidea pasa litekeen aztertzeke

■ Ibilbide hau definitibo xamarra dela dio Diputazioak ■ Auzotar batzuk tunela egiteko aukera ikusten dute ■ Bizilagunak, haserre daude makinak baimenik eskatu gabe sartu omen dituztelako.

2002 urte inguruan hasi nahi du egiten Donostiako Bigarren Saihesbidea. Bide hau, Diputazioak. Bidea Galarretako hortatik dator, Arizmendin pasa eta Astigarraga ingurutik Oiartzuna iristeko.


Horrez gain, iparraldeko saihsbidea ere ingurutik pasatzen da, Galarretatik Florida aldera dijoana.

AURREPROIEKTUA EGINA

Luis de los Mozos Diputazioari errepide arduradunak esan digunez, aurreproiektua egina dago. Badakite gutxi gorabehera nondik pasako den bidea. Hala ere, terrenoa aztertu behar dute lehenbizi.

AUZOKOAK HASERRE

Balantxa baserriko Julian Ezeizak dio, auzotarrak haserre daudela "Bigarren saihsbideak mendia txikitzen digu, zergatik ez dute tunela egiten? Bizilaguna eta biak ados gaude. Gainera, iparraldeko saihsbidea ere hortxe dator 50 metrora; zergatik ez



Julian Ezeizaren terrenoetan ibili ziren, atzo, 'katak' egiten, Arizmendi jatetxe inguruan.

dituzte biak batera pasatzen? Alperrikako txikiketa iruditzen zaigu".

Horrez gain, makinak abisatu gabe sartu dituzte terrenoa *katak* (frogak) egitera eta horrekin ere ez daude ados.

"TUNELIK EZ DA EGINGO"

Diputazioari Luisek dionez "horrelako frogak egitera ukatu daiteke baserriarra. Bere eskubidea da, baina, orduan lurra espropiatu beharko genioke. Hobe da *katak* egi-

uztea. Gainera, frogaren batean ez da lurrik hondatzen".

Tunela egitea deskartatu egiten dute eta bi bideak elkarrekin eramatea ere bai: "tunelik ez da egingo eta bi bideak ere ezin dira elkarren ondoan joan. Hori, esan zaie".

PELOTA -GIPUZKOAKO TXAPELKETA-

Burutaran-Valero txapeldun paleta goman

■ 30-18 irabazi zietan Usandizaga-Lujanbiori ■ Erremontean gaur jokatu dute finala nagusiek, 09:00etan Galarretan.

HERNANIARRREN arteko finala izan zen atzo paleta goman, jubeniil mailan. Burutaran-Valero gelditu dira txapeldun. Partidua, erdi lanak arte, berdindua joan zen. Handik aurrera puskatu zen.

Bestalde, gaur erremontean Agi-

lar hernaniarrak Juaristekin jokatu du Gazte Lekuren kontra: 09:00etan Galarretan.

Buruz buru, kadeteetan, Mikel Arrietak ere gaur jokatu du Intxaurren, 17:00etan. Irabazi ezkerreko finalera pasako da. □

ESKUBALOIA

Bilbon jokatu du gaur Hernanik

■ Hernaniarrak hirugarren doaz, lehen bietatik puntu bakarrera.

ESKUBALOIKO taldea fin ari da aurtengo denboraldian ere. Joku maila altuenera iritxi ez arren, partidua irabazi egiten dituzte eta sailkapeneko goiko postuetan dira. Gaur Bizkaian jokatu dute San Adrianen kontra. Partidua 18:30etan izango da. San Adrianek ondo hasi zuen denboraldia, baina, azken partiduetan behera egin du. Ea gaur beharxeago joaten den. □

Ehiza txapelketa bihar, Epele eta Usoko errekan

HERNANIKO 23garren ehiza txapelketa jokatu da bihar eta bihar zortzi, Epele errekan eta Usoko errekan. Bi asteburuetakoa puntuen sumak emango du aurtengo txapelduna.

Goizeko 10:00etatik 13:30etara egingo dute ehiza, baina, parte-hartzaile guztiek 09:00etarako bertan beharko dute. Antolatzailea Txantxangorri elkarte da. □

BOLEIBOLA

Hernani-Sestao aurrez aurre, gaur kiroldegian

HERNANIKO boleibol taldeak etxean jokatu du gaur CV Antonio Trueba Sestao taldearen kontra. Hernaniarrak ez dute partidurik galdu oraindik, eta martxa horri eutsi nahiko diote gaur ere. Partidua arratsaldeko 17:00etan da, kiroldegian. □

KANTUZ ABESBATZA

Frantziako Castres herrira dijoaz kantura

KANTUZ abesbatza Toulouse ingurura dijoa kantura, gaur. Castres herrian dute kontzertua (Toulouseetik 50 kilometrora), arratsaldean. Hemendik Castres ingurura joandako jendearen omenez, edo antolatzen omen dute urteroko jai hau. □



Ford

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

Antziola-Motor

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola Motorren ikusi eta probatu egin dezakezu.

Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Xenon
Hernani
Telemar

AMD XP 1500
80 GBko diskoa,
512 MBko memoria,
17"ko monitora..

166.386 pta + %16 a Bez.
Beste hainbat ordenagailu
49.900 ptatik . 3 urteko garantia.

Telemar

ITXASTELE S.L. Telyco denda
Elkano 13, 943 33 26 00

MoviStar Activa
Hartu eta hitzegin

Hartu eta hitzegin

ordenagailua:

AMD 900
15"ko Monitora
56 Kbko Barruko Modema
Soinu T. eta Altabozak

48.900 Pts
293,89 €

■ ERRUGBIA -JUBENILEN EUSKAL LIGA-

Hernani lehen postuari eustera, gaur



Dena eman beharko dute gaur jokalarik gazteek.

EUSKAL ligan lehenengo dijaz jubenilak, jokaturako zortzi partidurak irabazita. Bigarren Elorrio da, partidu bakarra galduta (hura hernaniarren kontra).

Hernanik bi punturen alde ateratzen dio Elorriori, eta lau Ordiziari. Gaur irabazi ezkerorau puntura izango lituzke kontrario zuzenak, bi garaipenera alegia. Bizkaitarrak menperatu ezkeror Euskal Liga esku eskura izango dute gure errugbilariek, sei partiduren faltan. □

KIROLAK - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	WATERPOLOA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gorengo maila	Hernani-Elgoibar	Zubieta	Bihar, 16:30	Eusk.H. Liga	Hernani A-Sestao	Kiroldieg.	Bihar, 13:00
Emakum. liga	Usurbil-Hernani	Harane	Gaur, 15:30	Eusk.H.L. Emak.	Leioa-Hernani	Leioa	Gaur, 14:00
1. Erregionala	Behobia-Hernani	Gal	Gaur, 19:30	Eusk.H.L. 2.maila	Leioa-Hernani	Leioa	Gaur, 13:15
Gazteak. L. Naz.	Asti Leku- Hernani	Ibarreta	Bihar, 18:00	ERRUGBIA	TALDEAK	NON	NOIZ
Gazteak Ohor.	Beasain-Hernani	Loinaz	Gaur, 17:00	Seniorra. 1. maila	Hernani-Mungia	Landare	Bihar, 12:00
Kadet. Ohor.	Aloña Mendi-Hernani	Ibarra	Bihar, 11:45	Jubenila. Euskal	Hernani-Elorrio	Landare	Gaur, 15:30
Haurrak Ohor.	Hernani-Real Sociedad	Zubieta	Bihar, 11:30	Kadetea. Euskal	Getxo-Hernani	Fadura	Gaur, 16:15
BOLEIBOLA	TALDEAK	NON	NOIZ	ESKUBALOAIA	TALDEAK	NON	NOIZ
1. Autonomika	Hernani-C.V.Sestao	Kiroldegia	Gaur, 17:00	Euskadiko L.	San Adrian - Hernani	Bilbo	Gaur, 18:30
Kadet. neskak	Lizardi Zarautz-Hernani	Zarautz	Gaur, 11:00	PELOTA	BIKOTEAK	NON	NOIZ
Kadet. Mutillak	Gas Hernani-A. S. Seb.	Kiroldegia	Bihar, 10:30	Erremontea	X. Agilar-Juaristi / Gaztel.	Galarreta	Gaur, 9:00
				Eskuz Bin. Kad.	Intxaurrondof Arrieta	Intxaurr.	Gaur, 17:00

JASOTA BEZALA

16an BELODROMORA

BERTSOLARI txapelketa azken txanpan sartu da. Neri, beste hainbat herritarren moduan, txikitatik gustatu izan zait entzutea, besteak beste, gurasoei esker.

Lehenik eta behin, "kanpoan" gelditu arren, zorionik beroena txapelketan parte hartu duzuen hernaniar gazteei: ARITZ, UNAI, IÑAKI, egindako saio txukunengaitik.

Gure herrian, gure bizitzan, badira gauza onak ere. Besteak beste, bertsolariak eskeintzen duten

"miraria". Beraiek sortzen duten giroa, inprobisazioaren majia, gainen sakontasuna, euskera susperetzea,... ez da txorakeria. Pertsonalki edo sozialki gizartea aberasten du.

Eta, abenduaren 16an, zer? Bereziki, "gure inguruko" MAIALEN, JEXUX M^a eta AITOR, gainontzeko finalista guztiak ahaztu gabe, animorik handiena kategoriko saioa osatu ezazuen. Ez duzue lan erraza, txapelketak ematen duen tentsioa eta lasaitasunak ematen duen freskura elkar lotzen. Dena dela, ez ditugu ahaztu behar

azken urte hauetan egin duzuen lana eta emaitzak, batez ere, belau-naldi berriak bertsozintzari emandako gorakada. Mila esker!

Amaitu aurretik, aipamen berezia MAIALEN LUJANBIO hernaniarrari. Orain dela lau urte bezala, bera izango da emakume bakarra finalean. Bainan beste batzuek ere hor dabilta punta-puntako bertsozintzari; eta hori aurrerapauso garrantzitsua da. Aupa neskak!

Besterik gabe, datorren igandean dugu zita....

JOXE ELIZONDO "NIKO"

■ HITZ BITAN



Eskulanak ikus daitezke Biterin, 17:00etatik 20:00etara.

✓ ERAKUSKETA BITERIN

'Haizea' eta 'Aurki' dende erakusketa daukate jarria Biterin. Eskulanak daude ikusgai Biteri Kultur Etxean. Abenduaren 22a arte egongo da irikita 17:00etatik 20:00etara.

✓ ZINEA BITERIN

'Scary Movie II' eta 'Doraemon', gaur, Biterin. Gaurko pelikulak hauek dira: 17:00etan *Doraemon*; eta 19:30etan eta 22:30etan *Scary Movie II*.

✓ ERREMONTA FINALA

Promesen txapelketako finala, gaur Galarretan. Erremontea zaleek zita garrantzitsua dute gaur Galarretan. Agirresarobe-Aizpurua eta Zeberio III-Badiolak, Promesen arteko txapelketako finala jokatu dute. Txapelketa, kuadro profesionaleko sei bikote gazteren artean jokatu da. 16:00etan hasiko da.

✓ PELOTA -KRONIKA TXAPELKETA-

Bi partidu jokatu dira gaur Tilosetan. Lau partidu jokatu dira orain arte. Gaur, beste bi jokatu dira, 16:00etan hasita: lehenengoa, Aritz-Mikel/Arano-Gorka izango da; bigarrena, Pello-Alex/Garmendia-Zabala. □

HERIOTZAK

Leocadio Leoz Berruezo
Asteazkenean hil zen 93 urte zituela

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalarik anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
▶ Gauez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793

OIALUME BILTOKIA.

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Nº 65.974 Zkia.

GALERIAS BUEN PRECIO, AITOR PEÑA, ARETZE HARATEGIA, LIRAIN MODAK, JAIONE KONJELATUAK, IMAGE CENTER J.A.TORRES

Dendari hauek 20 Pztako partaidetza oparitzen dizue, 2001eko abenduaren 22an zozketatuko den Loterian.

Zuen konfidantza eskertzen dugu.

ZORTE ON !

Urdin

Osagarri, opari edo lurrinen bila bazabiltza, Montebideoo kalean aurkituko duzu orain behar duzuna: Poltsak, lepokoak, pitxiak, lurrinak eta abar.

URDIN Osagarri Denda

Montebideoo kalea 1 (EPO eta atletismo pista artean) - HERNANI

MURUA

1966an SORTUTAKO ETXEA

HARATEGIA - URDAITEGIA

35 urtetik gora haragirik onena eskeintzen.

Hernaniar guztioi eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu.

ZORIONAK ETA ONDO IZAN!

Larramendi 17- 943 55 03 32 - HERNANI

8 urte ORMAZARRETA "ORMAXAR" baserriko haragiarekin.

Skoda Fabia Sedan. Egin ezazu amets.

MENABI

Xingurri pas. 26 - Herrera auzoa - DONOSTIA Tel. 943-40 42 43